

PASAPORTE ABENTURAZALEA. GJH IBILBIDEA

HEZKUNTZA MATERIALAREN ERANSKINAK



Edukigileak:

Mónica Nuño Viguria

Celia Sainz Alonso

Auditoretza eta edizioa:

ONAY

Avda. Baja Navarra 64, 1º

31006 Pamplona—Navarra

(+34) 948 176 048

onay@onay.org

www.onay.org

Diseinua eta maketazioa:

JGA Estudio

jga@jgaestudio.com

www.jgaestudio.com

Inprimatzea:

Gráficas Allo

Lege Gordailua:

DL NA 155-2025

Finantzazioa:

Gobierno de Navarra

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



**Lan hau libreki kopiatzeko, banatzeko eta publikoki komunikatzeko baimena daukazu, betiere egiletasuna aitortzen bada eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada.*

Hona hemen hezkuntza materialean proposatu diren jarduerak garatzeko beharko dituzun eranskin guztiak. Materiala edonork du eskura **ONAYren webgunean** (www.onay.org) beraz, agiriak behar adina aldiz inprimatzen ahalko dituzu nahi bezala erabiltzeko.

I. ERANSKINA : EL SALVADORKO EMAKUME AITZINDARIAK

II. ERANSKINA: TXINAKO ERRONKA HANDIA

III. ERANSKINA: IBILBIDE HEZIGARRIAK: AMETSAK ETA ERRONKAK TXINAKO ESKOLAN

IV. ERANSKINA: ARTEAREN ESPLORATZAILEAK. BIDAIA ARDURATSUAREN ERRONKA

V. ERANSKINA: ITALIAKO ALTXORREN ZAINZAILEAK

VI. ERANSKINA: OZEANOA SALBATZEKO ANTZERKIA

VII. ERANSKINA: ANTARTIKA ESPLORATZEKO TALDEA

I.ERANSKINA:

EL SALVADORKO EMAKUME AITZINDARIAK

A. EL SALVADORKO EMAKUME AITZINDARIAK

Claudia Lars

Claudia Lars (1889 - 1974). Egiazki, Margarita del Carmen Brannon Vega zuen izena eta ospetsua da El Salvadorko poesian eragin sakona izan zuelako. 1899an jaioa, lirismoan eta metrikari nabarmendu zen, El Salvadorko literaturan ondare iraunkorra utzita. Era askotako gaiak landu zituen, hots, gai pertsonalak, emozioak, gai sozialak, kulturalak, eta beste. El Salvadorko literatur identitateari ekarpen handia egindakoa.

Prudencia Ayala

Prudencia Ayala (1885 -1936). El Salvadorko idazle eta gizarte ekintzailea izan zen, bertako lehen presidente gai emakumezkoa, emakumeen eskubideen aldeko borrokan aritua, emakumeek boto eskubiderik ez zuten garaian. Emakume ausarta eta ekilea, bere garaiko hesiak hautsi eta arauen kontra jo zuen; azken finean, herrialde hartako genero berdintasunaren aldeko borrokaaren ibilbidean mugarri.

www.youtube.com/watch?v=JFTfKSwLBoc (Billiken, 2021)



María Isabel Rodríguez

María Isabel Rodríguez (1922) ospetsua da El Salvadorko medikuntzan eta hezkuntzan, aztarna utzitakoa bertako historian. El Salvadorko Unibertsitateko (UES) Medikuntza Fakultatean graduatu zen lehenetarikoa emakumea da, handik urte batzuetara dekanatu izandakoa. Akademiaren haratagoko ekarpena egin du, El Salvadorko ordezkaria izan baita Osasunaren Erakunde Panamerikarrean (OPS) eta Osasunaren Munduko Erakundearen 20 urtean. Osasunari eta hezkuntzari emana bizi izan da eta, hori dela eta, 11 honoris causa doktoretza baino gehiago jaso ditu. Hitz batez, egiazko aitzindari eta gidaria bere arloan.

Isabel Dada

Isabel Dada (1941-2017) aktore eta olerkaria izan zen. El Salvadorko lehen aktore handizat jotzen da. Antzerkian aritu zen, tarteka zineman ere parte hartuta. "Los peces fuera del agua" (1970) filmean izan zen lehendabizikoz protagonista, David Calderón zinemagileak egina. El Salvadorko zinemaren film luze klasikoa dela esaten da. 2008an, "Kultura Sari Nazionala" eman zioten eta, 2004an, "Actriz Meritísima de la Patria" aitortza egin zitzaion. William Shakespeare Antzerki Akademia ere sortu zuen. Bere herrialdeko artearen aldeko lan nekagaitz eta etengabearen esker onean, sari horiek eta beste asko jaso zituen.

www.youtube.com/shorts/LbvMFgB5jPQ?si=tDMzD19viE3ahMND (Biblioteca Virtual Cuzcatlán, 2024)



Morena Celarié

Morena Celarié (1922- 1972) deantza folklorikoan aritu zen profesionalki. El Salvadorko dantza folklorikoaren historiak bi garai ditu: Morena Celariéren aurrekoa eta Morena Celariéren ondokoa. Artearen munduan, "La Morena de Cuzcatlán" esaten zitzaion. Dantzari aparta, herrialdeko dantza folklorikoaren

lehen talde profesionala sortu zuen, bai eta bere izena daraman Dantza Eskola Nazionala ere. Folklore cuscatlecoaren amatzat jotzen da, lurraldean utzitako arte eta kultur ondarea dela eta. Kultur nortasun cuscatlecoa berreskuratzearen alde borrokatu eta hamaika erronka eta atsekaberi egin zion aurre.

Cristina Esmeralda López

Cristina Esmeralda López (1982) El Salvadorko kirolaren inoizko atletarik onenetakoa da. Zailtasunez betetako hasieraren ondotik, urrezko domina eskuratu zuen Rioko Joko Panamerikarretan, 2007an. Hura haren garaipenik handia izan da. Kirolariak El Salvador jarri zuen Amerikako lehiaketen mapan eta historiara pasatu zen. Ondoren, PCNko diputatua izan zen herrialdeko Lege Biltzarrean, 2015etik 2018era.

www.youtube.com/watch?v=pNvsCxVlcSU (NORTV, 2015)



Claudia Lars



Prudencia Ayala



María Isabel Rodríguez



Isabel Dada



Morena Celarié



Cristina Esmeralda López

B. JARRERA HARTZEAREN DINAMIKA:

1. Nork uste du emakumeek gizonek adinako soldata jaso beharko luketela lan bera egiteagatik?
2. Nork uste du garrantzitsuagoa dela neskak zientzia eta teknologiaren arloetan hezteak?
3. Nork uste du emakumeek ordezkariak handiagoa izan beharko luketela gobernuan eta politikan?
4. Nork uste du emakumeek gizonek adina aukera eta laguntza izan beharko luketela kirolean aritzeko?
5. Nork uste du gizonek eta emakumeek berdintasunez egin beharko luketela bai etxeko lanak bai seme-alabak zaintzeko lanak?
6. Nork uste du emakumeak lider eraginkorrak izan daitezkeela edozein alorretan, hala nola zientzian, politikan edo negozioetan?
7. Nork uste du emakumeek jo egin dezaketela emakumeak mugatzen dituzten kultur tradizioen aurka?
8. Nork uste du ez direla behar adina aitortzen emakumeek historian egindako ekarpenak?
9. Nork uste du guztion erantzukizuna dela emakumeen eskubideen alde borrokatzea, ez emakumeena bakarrik?
10. Nork uste du munduko neska guztiak izan beharko luketela eskolara joateko eskubidea, haien egoera ekonomikoa edo kulturala kontuan hartu gabe?
11. Lor simi, corem quae vel ide et, suntium fugiand ucipisquiam, aut liquamus maximo reptationse vita velestis es et veniet es nimus laborestias cuptat doluptur magnat quate rehendi andent.
12. Evelibus, qui cus, quam, saped et quiaecust, con ex eliquib erundem a core non pos aut liquatemosa dolupiet volupta tiuscim porrore hendae nonse prem quas dest, ut quo od essinul lesequo totatum quia des deris ea vent, es quundis mo il ipsam as delesequam voluptatur? Quis sunt que cor mod quat as expliquae delit lat.
13. Lest porum eum dolore magniatibus aciistotaque nostio ea neculla boratecto et et incte sandit, odicaercia aspis eat.
14. Ficatur, tetur sandignihit et aut laborum vident, omnim volorpo rporece pudam, tenisci enditacionem eiciet, est modistolorum consequamus, ipiducilibus dolectur? Solore comniscid ut quid quae. Nequae atendit, voluptaquae nobissimum aspe non eaquis ex exere et a consed et la quo tet quia sendionem comnis et es dem vendell acitiat volore, ulparch illenih ilitia sequiae elitatempos molumquist, everum quassum lam, voluptiis aci doloribus venis esti as mos et dolor mi, nit ratque sitas mos aute lautemp erepudi ssedisciis doluptatur?
15. Maior apissitium nobisse quossi que pliquamet audae mo torenes tiorepre, quia debis essitempe nimeter, si omnis estiaeped quo voluptatur repe pore nobitatio. Nam es ma quaspel liquas non nonest ea parchilligent qui doluptas audi re et, sequi occur endandis aciis nit untiatum, te vero berit ut pedipsunti animpero beaquia pore, sim ipsus, etureperis dipiet fugia debis incipicid unt abor maionem iur, cupta nus.
16. Ulpa cum exerum nonsequi volupta volupta ecture, omnis re omnisquam veliquamusae num fugiatatur? Ihillene dolorem et omnitaest, con cusant.
17. Nectibusam, odionsendias perovidel et maximoles rem quist quodit ut utecea sequos explatibus earis eos de si quam et hil eaturepe parci reris re et laccusdae voluptia que culparumet exeat et modio essitae. La paruptat as ea nonsequam ipitias aut quod ulpa vit officae nos earias comnia nat.
18. Bearioestia ipis sunditibus volore et, quis eos ut lit as atur am earum quamend eliqui discia conessi

II. ERANSKINA:

TXINAKO ERRONKA HANDIA

A. QUIZ GALDERAK

1. Txinan desagertzeko arriskuan dagoen zein animaliak behar du babes, bere habitata galtzearen ondorioz?

a. a. Panda erraldoiak (Zuzena)

- b. Gameluak
- c. Tigre siberiarrak
- d. Elefante afrikarrak

Panda erraldoia Txinako ikur ezagunenetakoa bat da, bai eta munduko kontserbazio ahalegin handienaren ikurra ere. Animalia horiek galtzeko arriskuan daude, batez ere giza hedapenak eta garapen ekonomikoak eragintzen, haien habitata galdu eta zatikatu delako. Txinak natur erreserbak ezarri ditu pandak eta haien habitata babesteko.

2. Txinako hiri hauen artean zein da eguzki-energia garatzeko ahaleginengatik ezaguna (planeta kutsatzen ez duen energia)?

- a. Shanghai
- b. Pekin

c. Dunhuang (Zuzena)

- d. Hong Kong

Dunhuang, Gansu probintzian kokatua, aitzindaria izan da Txinako eguzki-energiaren garapenean, bertako basamortu-klima eta egun eguzkitsu ugariak aprobetxatuz. Hirian eguzki-etxalde zabalak daude, herrialdeko energia berriztagarriaren ekoizpena nabarmen bultzatuta

3. Txinako zer proiektu egin nahi dio aurre basamortutzeari, milaka zuhaitz landatuz?

a. Horma Berde Handiaren Proiektuak (Zuzena)

- b. Ibai Horiaren Proiektuak
- c. Herensuge Berdearen Proiektuak
- d. Harresi Handiaren Proiektuak

Txinako industrializazio eta urbanizazio azkarrak airea nabarmen kutsatu du hiri askotan. Erregai fosilak erretzeak, industria isuriek eta trafiko igoerak arazoa areagotu dute, osasun publikoari eta ingurumenari eraginda.

4. Zer ingurumen arazori aurre egiten diote Txinako hiri askok, industrializazioaren ondorioz?

a. Goxoki zaparradari

b. Airearen kutsadurari (Zuzena)

c. Lore gehiegi izateari

d. Kale garbiegiak izateari

Txinako industrializazio eta urbanizazio azkarrak airea nabarmen kutsatu du hiri askotan. Erregai fosilak erretzeak, industria isuriek eta trafiko igoerak arazoa areagotu dute, osasun publikoari eta ingurumenari eraginda.

5. Zein da garapen ekonomiko azkarraren ondorio kaltegarria Txinako zenbait lekutan?

a. Turismoa handitzea

b. Parke tematiko gehiago

c. Natur eremuen galera (zuzena)

d. Errepide hobeak

Txinako hazkunde ekonomiko azkarrak natur eremuen galera ekarri du, hiri-hedapenaren, azpiegiturak eraikitzearen eta baliabideak ustiatzearen ondorioz. Garapen horrek espezie askoren habitata hondatzea eta biodibertsitatea murriztea eragin ditu.

6. Zer praktika da ona kontsumismoa murrizteko?

a. Arropa gehiago erostea

b. Bota aurretik, gauzak gehiagotan erabiltzea (Zuzena)

c. Urtero, azken telefono modelo erostea

d. Zapata gehiago izatea

Bota aurretik, produktuak gehiagotan erabiltzeak murriztu egiten du sortzen dugun zabor kopurua, gure ingurumen aztarna ere murriztuta. Praktika horrek kontsumo arduratsuen jarrera sustatzen du, kontsumismoaren aurkakoa, kontsumismoak produktu gehiegi erosi eta botatzea eragiten baitu.

7. Garapen jasangarriari dagokionez, zein da Txinarentzako erronka handienetako bat?

a. Uraren kutsadura murriztea (zuzena)

b. Erregai fosilen erabilera handitzea

c. Bizikleta kopurua murriztea

d. Merkataritza-gune gehiago eraikitzea

Txinak duen ingurumen erronka garrantzitsuenetako bat uraren kutsadura da, industria isuriek, nekazaritza intentsiboak eta hiri-garapenak eragindakoa. Herrialdeak uraren kutsadura tratatzeko eta prebenitzeko politikak eta teknologiak ezarri ditu, bizilagunentzako eta ingurumenarentzako ur baliabide seguruak eta

garbiak bermatu nahirik.

8. Zer ekimen abiarazi du Txinak hirietan garraio jasangarria sustatzeko?

- a. Bizikleta kopurua murriztea
- b. Garraio publikoa debekatzea

c. Ibilgailu elektrikoaren erabilera pizgarrien bidez sustatzea (zuzena)

- d. Autoentzako erregaiaren prezioa igotzea.

Txina ibilgailu elektrikoaren merkaturik handiena da munduan, eta ibilgailu elektrikoaren erabilera bultzatzen du airearen kutsadurari aurre egiteko eta garapen jasangarria sustatzeko. Gobernuak pizgarriak eskaintzen ditu ibilgailu elektrikoak erosteko, karga-azpiegiturretan inbertitzen du eta ibilgailu elektrikoaren industria nazionalari laguntzen dio.

9. Nola ari da Txina plastikozko poltsen arazoari aurre egiten?

a. Hiri guztietan holako poltsak debekatuz (zuzena)

- b. Plastikozko poltsa gehiago eginez
- c. Plastikozko poltsa gehiago inportatuz
- d. Plastikozko poltsak apaingari gisa erabiliz

Txinak neurriak hartu ditu erabilera bakarreko plastikozko poltsen erabilera murrizteko, kutsadura plastikoa aurre egiteko ahaleginen artean. Neurri horien artean daude plastikozko poltsak ekoiztu, saldu eta erabiltzeko debeku eta murrizketak, aukera jasangarriagoak sustatuz eta zabor plastikoa murriztuz.

10. Txinako landa biztanleriaren zein taldek ditu hezkuntza jasotzeko zailtasunik handienak?

- a. Industriako langileek
- b. Gutxiengo etnikoek (zuzena)**
- c. Hirietako bizilagunek
- d. Enpresaburuek

Txinan, gutxiengo etnikoek erronka handiak dituzte kalitatezko hezkuntza eskuratzeko; landa eremuetan, batez ere. Hizkuntza oztopoek eta hezkuntza azpiegitura egokirik ezak aukera desberdintasuna areagotzen dute, eta horrek haien garapenari eragiten dio.

11. Txinako zer sistema politikok areagotu du landa eremuen eta hiri eremuen arteko desberdintasuna zerbitzu publikoak eskuratzeko orduan (hezkuntza, osasuna, etab.)?

- a. Hukou sistemak (zuzena)**
- b. Seme-alaba bakar baten politikak
- c. Hezkuntza sistemak

d. Kanpo merkataritzako politikak

Txinako hukou sistema bizilekua erregistratzeko modu bat da eta hirietako zerbitzu publikoetarako sarbidea mugatu die landa eremuko migratzaileei, hala nola hezkuntzarako eta osasunerako sarbidea; ondorioz, bere horretan dirau hiri eremuen eta landa eremuen arteko desberdintasunak.

12. Nola deritzo Txinan landa pobrezia murriztea helburu duen proiektuari, familiak eremu garatuagoetan birkokatuz?

a. Zetaren Ibilbide Berria

b. Pobrezia Arintzeko Programa (zuzena)

c. Zerrendaren eta Ibilbidearen Politika

d. Horma Berdearen Proiektua

Pobrezia Arintzeko Programak azpiegitura gutxiko eremuetako landa familiak eremu garatuagoetan birkokatu ditu, aukera ekonomiko hobekak eta funtsezko zerbitzuetarako sarbidea emateko. Baina pobreziaaren aurka borrokatzeko modu horrek ez du pobretutako eremu horien arazoa konpontzen.

13. Zein da Txinako hiri- eta landa-langileen arteko soldata desberdintasunaren arrazoi nagusietako bat?

a. Hirietan goi-mailako hezkuntzarik ez izatea

b. Landa-produktibitate handiagoa

c. Herrietatik hirietara migratzea (zuzena)

d. Landa eremuetan teknologia aurreraturik ez egotea.

Landa eremutik hiri-eremuetara izandako migrazioak desberdintasun handia sortu du soldata aukeretan; izan ere, langile migratzaileek askotan soldata txikiak jasotzen dituzte eta hirietan lan-baldintza txarrei aurre egin behar izaten diete.

14. Txinako zer langile migratzailek dute arazo gehien gutxieneko lan eskubideak izateko?

a. Goi-teknologiaren sektoreko langileek

b. Landa eremutik migratutako langileek (Zuzena)

c. Estatuko enpresetako langileek

d. Eremu frankoetako langileek

Txinako landa eremuetatik migratu duten langileek ez dute behar bezalako lan eskubiderik. Izan ere, lanaldi luzeak dituzte, soldata txikiak, eta nekez eskuratzen dituzte osasun eta hezkuntza zerbitzuak. Horren ondorioz, desberdintasun sozial handia dago.

15. Zer estrategia ezarri du Txinak justizia soziala sustatzeko eta desberdintasuna murrizteko?

a. Langileen eskubideak murriztea

b. Landa hezkuntza hobetzea (zuzena)

c. Hiri-enpresei zergak murriztea

d. Merkataritza oztopoak handitzea

Txinako gobernuak landa eremuetako hezkuntza hobetzen saiatzen ari da, komunitate behartsuei aukera gehiago emanaz eta hiri eremuen eta landa eremuen arteko desberdintasuna murriztuz.

16. Txinako zer ekimenak murriztu nahi du lurzoruaren kutsadura, nekazaritza jasangarriaren bidez?

a. Nekazaritza Adimendunaren Proiektuak

b. Iraultza Berdeak

c. Eko-Nekazaritza Proiektuak (zuzena)

d. Urre koloreko Arrozaren Misiok

Txina nekazaritza lan jasangarriak sustatzen ari da Eko-Nekazaritza Proiektuaren bidez. Proiektu horren helburua da ongari kimikoen eta pestiziden erabilera murriztea da eta, era berean, ingurumena gehiago errespetatzen duten nekazaritza teknologiak ezartzea.

17. Harresi Handiaren zer zati ari dira zaharberitzen, material jasangarriak erabiliz?

a. Jiankouko atala

b. Mutianyuko atala (zuzena)

c. Badalingeko atala

d. Shanhaiguaneko atala

Mutianyuko atala zaharberitzeko, teknika eta material jasangarriak erabiltzen ari dira, ondare historikoa eta ingurumena zaintzeko.

18. Txinako zer eskualdek ezarri du ekoturismoa, garapen jasangarrirako estrategia gisa?

a. Tibetek

b. Hainan uharteak (Zuzena)

c. Xinjiangek

d. Shanghaik

Hainan uhartea ekoturismoaren eredu bihurtu da Txinan, ingurumena eta tokiko komunitateak babesten dituen turismo eredu jasangarria sustatuz.

19. Zer garraio sistema garbi hazi da esponentzialki Txinako hiri nagusietan?

a. Abiadura handiko tren elektrikoak (Zuzena)

- b. Ikatz autobusak
- c. Gasolina motorrak
- d. Automobil pribatuak

Txinak abiadura handiko tren elektrikoen sare zabala garatu du, eta horrek nabarmen murriztu du auto pribatuekiko mendekotasuna, eta garraio jasangarriagoa lortzen lagundu du.

20. Nolako energia berriztagarria erabiltzen da gehien Txinako landa eremuetan ikatza ordezkatzeko?

- a. Energia hidroelektrikoa
- b. Eguzki-energia (zuzena)**
- c. Energia nuklearra
- d. Ikatzaren energia

Txinako landa eremuetan, eguzki-panelen erabilera sustatu da ikatzaren eta beste erregai kutsagarri batzuen errekontza ordezkatzeko eta elektrizitatea eskuratzeko sarbide garbiagoa errazteko.

B. EKINTZA ERRONKAK

1. Erronka: Ura aurreztea

Mimikaren bidez, antzestu ura etxean aurrezteko modu bat. Gainerako ikaskideek asmatu behar dute.

2. Erronka: Birziklapen sortzailea

Aurkitu objektu bat ikasgelan, normalean zakarrontzira botako genukeena, eta pentsatu huraxe erabiltzeko modu berri bat.

3. Erronka: Birziklapen sortzailea

Marraztu birziklatu dezakezun zerbait

4. Erronka: Kontsumoa murriztea

Pentsatu benetan nahi duzun zerbait, baina behar ez duzuna. Nola dibertituko zara edo nola izango zara zoriontsu huraxe erosi gabe?

5. Erronka: Garraio Garbia

Mimikaren bidez, irudikatu zer garraiobide erabil dezakezun airearen kutsadura murrizten laguntzeko. Gainerako ikaskideek huraxe asmatu behar dute.

6. Erronka: Landaketa

Ingurumenari laguntzeko zerbait landatu ahal izango bazenu, zer landatuko zenuke eta zergatik?

7. Erronka: Energia berriztagarria

Marraztu nola erabil dezakegun eguzkia edo haizea energia sortzeko.

8. Erronka: Janari Jasangarria

Sortu tokiko eta garaian garaiko elikagaietan oinarritutako menu jasangarri bat.

9. Erronka: Plastikoa murriztea

Zerrendatu 10 elikagai edo tresna, normalean plastikoz bilduta erosiko zenituzkeenak, eta proposatu aukera jasangarriago bat huraxe erosteko (poltsa berrerabilgarriak edo produktuak soltean).

10. Erronka: Energiaren kontserbazioa

Mimikaren bidez, antzeztu elektrizitatea etxean aurrezteko egin dezakezun ekintza.

11. Erronka: Erosketa arduratsua

Mimikaren bidez, antzeztu denda batean zaudela eta produktu jasangarriago bat aukeratzen duzula (plastikozko ontzirik gabeko produktu bat edo material birziklatuarekin egindakoa). Taldeko gainerako kideek asmatu egin behar dute zer produktu den eta zergatik den aukera hobea.

12. Erronka: Teknologia Jasangarria

Pentsatu jada erabiltzen ez duzun eta normalean botako zenukeen gailu teknologiko bat. Proposatu nola berrerabil dezakezun edo nola birziklatu dezakezun modu egokian.

13. Erronka: Arropa jasangarria

Irudikatu nola berrerabili edo birziklatu zenezakeen arropa zaharra, berria erosi beharrean. Gainerako taldekideek ekintza asmatu behar dute.

14. Erronka: Tokiko Elikadura

Pentsatu tokiko ekoizleei erosteko moduko 5 elikagai edo zure komunitatetik hurbil landatzen direnak. Nola laguntzen dio horrek ingurumenari?

15. Erronka: Ekoizpen masiboa murriztea

Mimikaren bidez, antzeztu ekoizpen masiboaren ondorio kaltegarriak (hala nola kutsadura, hondakin gehiegi izatea edo ballabideak agortzea). Gainerako taldekideek asmatu egin behar dute zer arazo erakusten ari zaren eta nola saihestu dezaketen arazo hori eguneroko bizitzan (adibidez, produktuak modu kontzientean eta kopuru txikiagoan erositik).

III. ERANSKINA:

IBILBIDE HEZIGARRIAK: AMETSAK ETA ERRONKAK TXINAKO ESKOLAN

A. IKASLEEN DESKRIBAPENAK

1. **Ikaslea:** Mei Ling (landa eremua, baliabideetarako sarbide mugatua)

- **Adina:** 10 urte
- **Kokalekua:** Yunnan probintzia, mendiko herrixka urrun batean
- **Familia ingurunea:** Mei Ling aitona-amonekin bizi da, gurasoek urrutiko hiri bateko lantegi batean lan egiten baitute. Aitona-amonak nekazariak dira.
- **Eskola:** Landa eskola txiki bat da eta bi ikasgela baizik ez ditu Lehen Hezkuntzako maila guztietarako. Eskolak ez du teknologiarik eta oso ikasliburu zaharrak ditu.
- **Oztopoak:** Mei Ling egunero ordubete ibiltzen da eskolara iristeko. Ez dago garraio publikorik. Eskolak ez du Internet konexiorik eta, urruntasuna dela eta, batzuetan elektrizitatea falta da. Gainera, egun batzuetan ez da eskolara joaten, nekazaritza lanak egiten laguntzeko.
- **Ametsak:** Mei Lingen ametsa da irakasle izatea eta bere komunitatean eskola hobea irekitzea, baina baliabiderik ezak aukerak mugatzen dizkiola sentitzen du.

2. **Ikaslea:** Wei Cheng (hiri eremua, baliabide modernoak ditu eskura)

- **Adina:** 12 urte
- **Kokalekua:** Shanghai, maila ekonomiko handiko hiri eremua
- **Familia ingurunea:** Wei Cheng gurasoekin bizi da; biak arlo teknologikoan lan egiten duten profesionalak dira. Anaia txiki bat du, eskola pribatu batera ere joaten dena.
- **Eskola:** Wei Cheng eliteteo eskola pribatu batera joaten da, azken teknologia duten laborategietara. Badira arbel elkarreragileak, curriculumez kanpoko eskolak eta irakasle espezializatuak.
- **Oztopoak:** Bere eskolak baliabide asko dituen arren, Wei Chengek presio handia sentitzen du, azterketetan emaitzarik onenak lortzearen. Denbora libre gutxi du eta lehiakortasunak estresa eragiten dio. Halaber, badaki ikaskide batzuek tutore pribatuak dituztela, are nota hobea ateratzeko.
- **Ametsak:** Wei Chengek robotika ikasi eta teknologiako enpresa batean lan egin nahi du. Zenbaitetan, ordea, kezka garria zaio bere familiak eta eskolak berarengan dituzten itxaropenak ez betetzea.

3. **Ikaslea:** Liu Han (landa eremua, migratzailea)

- **Adina:** 13 urte
- **Kokalekua:** Shenzhen, hiriarren kanpoaldean bizi da
- **Familia ingurunea:** Liu Hanek herrixka batetik alde egin zuen familiarekin batera, lantegi batean lan egitera. Apartamentu txiki batean bizi da gurasoekin eta bi anai-arreba gazteagoekin.
- **Eskola:** Hiriko eskola publiko batera joaten da, baina migratzaile estatusa duenez, zailtasunak ditu

eskola-sisteman erabat integratzeko. Eskola gainezka dago eta ez du behar adina baliabiderik.

- **Oztopoak:** Migratzailea denez, Liu Hanek hukouaren (egoitza erregistratzeko sistema) hesiari aurre egiten dio, eta horrek esan nahi du ez dituela bertako beste ikasle batzuek dituzten eskubide berdinak hirian kalitatezko hezkuntza jasotzeko. Gainera, zaila egiten zaio hiri ingurune berrira egokitzea, eta askotan lankideek baztertu egiten dute.
- **Ametsak:** Liu Hanek ingeniaria izan eta zubiak eraiki nahi ditu, baina familiaren egoeraren ezegonkortasunak eta eskola laguntzarik ezak eraginda, sentitzen du ez duela etorkizuna ziurtatua.

4. **Ikaslea:** Xue Wen (landa eremua, ikaslea eta desgaitasuna du)

- **Adina:** 11 urte
- **Kokalekua:** Guizhou probintzia, mendialdea
- **Familia ingurunea:** Gurasoekin eta ahizpa adingabe batekin bizi da. Bere familia oso batua dago eta nekazaritzan lan egiten du.
- **Eskola:** Xue Wen etxetik ordubetera dagoen landa eskola batera joaten da. Eskola txikia da eta ez du desgaitasunak dituztenentzako erraztasunik.
- **Oztopoak:** Xue Wenek ikusmen urritasun partziala du, eta horrek zaildu egiten dio ikasgelako testuak irakurtzea. Eskolak ez du formatu irisgarriko libururik, ezta hezkuntza inklusiboan espezializatutako irakaslerik ere. Batzuetan, irakasleek ez dute behar den prestakuntza Xue Weni behar bezala laguntzeko.
- **Ametsak:** Zailtasunak zailtasun, Xue Wenek abokatu izatea amesten du desgaitasunak dituzten pertsonen eskubideak defendatzeko, baina badaki laguntza handia beharko duela unibertsitatera iristeko.

5. **Ikaslea:** Zhang Li (hiri eremua, langile-familia)

- **Adina:** 15 urte
- **Kokalekua:** Pekin, auzo periferikoa
- **Familia ingurunea:** Zhang Li amarekin (kaleko saltzailea da) eta amonarekin bizi da (amona zaintzen du, ama lanean ari den bitartean). Aita txikitan hil zitzaion.
- **Eskola:** Hiriaren kanpoaldean dagoen eskola publiko batera joaten da, eta, landa eremuko eskola asko baino hobeki hornituta dagoen arren, ez ditu Pekingo eremu aberatsenetako eskoletako baliabideak.
- **Oztopoak:** Zhang Lik bere amari lagundu behar dio familiaren negozioan eskolaren ondoren, eta horrek ikasteko denbora gutxi uzten dio. Oso azkarra bada ere, denbora eta baliabide faltak mugatu egiten dio errendimendu akademikoa. Gainera, ez du eskuratzerik ez eskola pribaturik, ez tutoretza gehigarririk.
- **Ametsak:** Zhang Lik medikuntza ikasi nahi du, baina kezkatua dago egoera ekonomikoak ez ote dion amets hori zapuztuko. Halaber, kezkabide zaio unibertsitate on batera ezin joatea.

B. TESTU ZIFRATUAK

1. TESTUA

Lina eta Bao galdurik dabilta hirian

Ikastetxera iristeko, zuzen jarraitu behar dute Zaragozako etorbidean barna eta eskuinera biratu bigarren kaletik. Harategia dagoen izkinan, berriz ere ezkerrera biratu behar dute, zuzen jarraitu lehen kaleraino, berriro eskuinaldera biratu eta zuzen jarraitu errotondaraino. Errotondan bigarren irteera hartu eta ezkerretara biratuko dute Ducal jatetxea aurkitzen dutenean (lehen izkinan ezkerrean, hain zuzen ere). Zuzen jarraitu eta kalearen bukaeran ikastetxea topatuko dute (irteerarik gabeko kalea da).

2. TESTUA

Lina eta Bao galdurik dabilta hirian

Ikastetxera iristeko, ***jarraitu behar dute Zaragozako etorbidean barna eta eskuinera /// bigarren kaletik. ... dagoen izkinan, berriz ere ?? biratu behar dute, *** jarraitu lehen kaleraino, berriro eskuinaldera /// eta *** jarraitu errotondaraino. Errotondan bigarren irteera hartu eta ezkerretara /// dute Ducal jatetxea aurkitzen dutenean (lehen izkinan ezkerrean, hain zuzen ere). *** jarraitu eta kalearen bukaeran ikastetxea topatuko dute (irteerarik gabeko kalea da).

Ikurrak ez dizkiegu ikasleei emango

*** zuzen

///biratu

... harategia

?? ezkerrera

3. TESTUA

Lina eta Bao galdurik dabilta hirian

Lina д Bao добратся до школы, необходимо продолжить движение прямо по Avenida Zaragoza и повернуть на вторую улицу направо. Прямо на углу, где находится мясная лавка, снова поверните налево, продолжайте движение прямо до первой улицы, снова поверните направо продолжайте движение прямо до кольцевой развязки. На круговой развязке сверните на второй съезд и поверните налево, когда найдете ресторан Ducal (сразу на первом углу слева). Они продолжат движение прямо и найдут школу в конце улицы (это тупиковая улица).

Testua errusieraz

IV. ERANSKINA:

ARTEAREN ESPLORATZAILEAK. BIDAIA ARDURATSUAREN ERRONKA

A. ITALIAKO MONUMENTUAK ETA ARTELANAK

ERROMA

Erromako koliseoa

Erromako Koliseoa antzinako monumenturik ospetsuen eta miretsienetako bat da munduan eta Erromaren erdigunean dago, Italian.

Hasieran, ikuskizun publikoak egiteko erabili zen eta, haien artean famatuena gladiadoreen borroka ziren. Gladiadoreak esklaboak, gerra presoak edo boluntarioak ziren eta elkarren kontra borrokatzen ziren edota basa animalien aurka. Borroka haietan, maiz, gladiadoreak hiltzen ziren. Jokoak Erromako jendea entretenitzeko antolatzen ziren, baina Erromako boterea eta aberastasuna erakusteko ere balio zuten.

Koliseoaren tamaina ikaragarria da, 50.000tik gora lagunentzako lekua baitzuen, eta eraikinaren diseinu arkitektonikoa ere nabarmendu behar da. Izan ere, pasabide, eskailera eta sarrera sare konplexua zuen eta, horri esker, jendetza handia erraz sartu eta atera zitekeen.

Mendezmende, Koliseoak belaunaldi asko inspiratu ditu, handia eta ederra delako, Erromako zibilizazioaren handitasunaren eta konplexutasunaren oroigarri. Gaur egun, oraindik ere turistak erakartzeko gune nagusietako bat da eta Italiako kultur ondarearen ikur boteretsua ere bai, mundu zabaleko milioika turista erakarrita, bertako historia eta arkitektura ezagutu nahirik.

Bocca della Verità

Bocca della Verità, edo "Egiaren Ahoa" euskaraz, marmolez zizelkatutako eskultura zahar bat da eta Erroman dago (Italia). Santa Maria in Cosmedin elizako atarian dago kokatua eta mundu zabaleko turistak erakartzen ditu.

Teoria batzuen arabera, antzinako iturri baten edo euri-hustubide baten parte izan zitekeen, ibai-jainko bat edo itsasoa irudikaturik. Hala ere, mendeek aurrera egin ahala, ospe berezia hartu du, berari lotuta dagoen elezaharrak eraginda.

Elezaharraren arabera, "Egiaren Ahoak" hozka egingo die egia esaten ez dutenei. Tradizioaren arabera, Erdi Aroan pertsonen egiazkotasuna epaitzeko erabiltzen zen. Akusatu batek eskua eskulturako ahoan jarri eta gezur bat esaten bazuen, ahoa itxi eta eskua moztu egingo ziola pentsatzen zen. Mito horrek eraginik, Bocca della Verità justiziaren eta egiaren ikurra da.

Gaur egun, bisitariak ilaran egoten dira zain, eskua eskulturako ahoan jarri eta argazki bat ateratzeko, beren zintzotasuna frogatzeko ideiarekin jokaturik. Eskulturaren balio turistiko eta mitikoaz gain, Bocca della Verità garrantzitsua da, iraganeko gizartearen sinesmen eta ohiturak islatzen dituelako.

FLORENTZIA

Pisako Dorrea

Pisako Dorrea bere makurdura paregabetik da ezaguna. Marmol zurian egindako kanpandorra da, Italiako Pisa hirian dagoena. 1173. urtean eraikitzen hastean, haren azpian zegoen lurzoru bigunaren ondorioz hasi zen okertzen. Hala eta guztiz ere, 1372ra arte jarraitu zuten eraikitzen eta asmamenaren nahiz iraunkortasunaren ikurra da.

Jatorriz, eta gaur egun arte, Pisako Dorrea ondoan duen katedralaren kanpandorra da, eta eskala nagusiko musika-notei dagozkien zazpi ezkila ditu. Makurdura ospetsu hori gorabehera, dorreak bere xedea betetzen jarraitu du, fededunei otoitzera deituta eta bertan elizako ekitaldi garrantzitsuak eginda.

Denborarekin, kontserbazio lanak egin behar izan zaizkio, egitura egonkortzeko eta zutik iraungo duela ziurtatzeko, monumentu historikoa baita eta mundu osoan ospe handia duen erakarpen turistikoa ere bai. Bere funtzio praktikoaz gain, Pisako Dorrea Italiako aberastasun historiko eta arkitektonikoaren ikurra da, Erdi Aroko ingeniariak irudikatuta, bai eta gizakiak erronka naturalen aurrean duen iraunkortasuna ere.

Michelangeloren David irudia

Michelangeloren David eskultura marmolezko estatua errenazentista da. Bibliako David heroia irudikatzen du, hau da, Goliat erraldoiari nagusitu zitzaion heroia. Errenazimenduko Michelangelo Buonarroti jenoak 1501etik 1504era sortua, maisulana Florentziako Akademiako galerian dago, Italian.

Jatorriz, igarleen estatua sorta baterako enkargatu zen, Florentziako katedrala apaintze aldera, baina azkenean, plaza publiko batean kokatu zen, Palazzo della Signoriaren aurrean, hiriko askatasun zibilen defentsaren ikur gisa. Nabarmenezkoa da estatuaren perfekzio teknikoa eta edertasuna, bai eta haren sinbolismoa ere, kemen eta sendotasun moralaren ikurra baita.

5 metrotik gorako garaiera du, eta miresteak dira zinez lanaren anatomia zehatza eta begitarteari darizkion kontzentrazioa eta ausardia, Goliaten aurkako guduaren aurreko unea irudikatuta. Errenazimenduko giza edertasunaren ideala ederki irudikatzeagatik da goraipatua eta eskultura errenazentistaren adibide adierazgarrietako izaten jarraitzen du, mundu zabaleko bisitariak erakartzen baititu haren handitasuna mirestea.

VENEZIA

Ubide Handia

Ubide Handia Venezia (Italia) sigi-saga zeharkatzen duen ur-bide nagusia da. Ubide hori, izan ere, hiria bi zatitan banatzeaz gain, gondolak, vaporettoak (uretako autobusak) eta beste ontzi mota batzuk ibiltzeko "kale" nagusia ere bada.

Ubide Handia Veneziako gune ekonomiko eta kulturala izan da hiriaren sorreratik, pertsonen, ondasunen eta aberastasunen garraiorako ur-bide zuzena eskainiz. Bere ertzetan, Veneziako arkitekturaren lan bikainak dira miresteak, hots, bai antzinako jauregiak, bai eta Veneziako Errepublikaren historia aberatsaren lekuko diren elizak eta eraikin historikoak ere.

Ubide Handia ikusi eta sentitzeko modu tradizional eta gogoangarrietako bat gondolan igota ibiltzea da, bisitariak hiriaren ikuspegi paregabeez gozatzeko aukera ematen baitie.

Ubide Handia, gizakiak Veneziako ur-ingurunera egindako egokitzapenaren lekukotasuna izateaz gain, hiriaren historia, kultura eta edertasunaren ikur bizia ere bada. Horrexegatik da Venezia jomuga paregabea mundu zabalean.

San Markos Plaza

San Marcos Plaza Veneziako bihotza da. Ederra da zinez eta garrantzi historiko handia du. Horrek eraginik da mundu osoan ezaguna.

Veneziako "plaza" bakarra da. Izan ere, gainerako esparru irekiei "campi" esaten diete. Arkitektura lan bikainez eta kultur balio sakoneko hainbat lekuz inguratutik, plaza hau mendez mendez izan da Veneziako gizartearen, erlijioaren eta politikaren erdigunea.

San Markos plaza garrantzi arkitektoniko eta artistikoko lekua izateaz gain, kultur ekitaldi garrantzitsuen agertokia ere bada, Veneziako Inauteri ospetsua bane. Hala ere, gauza jakina da uholdeek urez estaltzen dutela aldizka ("acqua alta"). Uholdeek, beraz, are paregabeago egiten dute plaza hori, baina aldi berean agerian jartzen dituzte hiriak kontserbazioaren aldetik dituen erronkak.

San Markos plaza bisitatzea Veneziako historia bizian zehar ibiltzea bezalakoa da. Izan ere, eraikin eta harri bakoitzak loria, arte eta tradizioaren istorio bat kontatzen digu. Horregatik da plaza ireki hori munduko adierazgarrienetako bat, bai eta argazki gehien egiten dizkietenetako bat ere.

VATIKANO HIRIA

Kapera Sistinoa

Kapera Sistinoa, Vatikanon kokatua, munduko arte eta kultur altxorrik baliosuenetako bat da. Jatorriz, 1473tik 1481era eraiki zen, Sixto IV.a Aita Santuaren aginduz eta hari zor dio izena.

Kapera Sistinoaren eginkizun nagusia izan da ospakizun erlijioso garrantzitsuak egiteko leku sakratua izatea, Aita Santuaren hautaketa bane; hori konklabe izenez da ezaguna.

Bere esanahi erlijioso eta ospakizunezkoaz gain, Kapera Sistinoan dagoen arteak eraginik da mundu osoan ezaguna. Hormak eta sabaia apaintzen dituzten freskoak, izan ere, Errenazimentuko artelan handienetakotzat hartzen dira. Perugino, Botticelli eta, jakina, Michelangelo eta gisako artistek margotutako Itun Zahar eta Berriko irudiek estaltzen dituzte hormak. Hala ere, Michelangeloren Azken Judizioa eta sabaia dira beharbada miresgarrienak, maisutasun paregabearekin irudikatuak baitaude bai Bibliako pasarteak, bai arimaren azken patua.

Mendezmende, Kapera Sistinoak milioiak bisitari erakarri ditu, ez soilik lekuak duen garrantzi espiritualagatik, baizik eta era berean balio artistiko izugarria edukitzeagatik. Vatikanorentzat lehentasunezkoa da lekua babestu eta zaintzea, etorkizuneko belaunaldiek ere kaperaren edertasuna eta handitasuna miretsi ditzaten.

San Pedro Basilika

San Pedro Basilika Vatikanon dago eta elizarik adierazgarrienetako bat da munduan, toki guztietan aitortzen baita bai basilikak duen arkitektura ikusgarria, bai lekuari darion balio espiritualak. Errenazimenduko eta barrokoko artista nabarmenek diseinatua (Michelangelo eta Bernini), kupula zut eta buru da Erromako paisaian eta kristandadearen ikurra da.

Basilikaren barnealdean artelan bikainak daude, Michelangeloren "Pietatea" eta Berniniren baldakino monumentala bane, arte sakratuaren aberastasunaren adierazgarri. Gainera, San Pedro apostoluaren -lehen Aita Santuaren- ehorzketa lekua denez, erromes leku handia da, eta erlijio-ospakizun handiak egiten dira, Aita Santua buru dela.

Arte, historia eta esanahi erlijiosoa ederki uztarturik, San Pedro Basilika jomuga nagusia da mundu zabaleko erromes eta turistentzako. Azken finean, Vatikanon Hiriko interesgune paregabea da.

MILAN

Azken Afaria

Azken Afaria hormako margolan ospetsua da, Leonardo da Vincik Santa Maria delle Grazie Komentuan kokatua. 1495etik 1498ra margotua, Errenazimenduko maisulan horrek Bibliako pasarte bat irudikatzen du, hots, Jesukristok bere hamabi apostoluekin egindako azken afarria, Jesusek jakinarazten duenean apostolu hailetako batek traizio egingo ziola.

Margolan nabarmena da, bai konposizio berritzailea duelako, bai Da Vincik teknika esperimentalak erabili zuelako; izan ere, fresko tradizionalak baino iraunkortasun handiagoa bilatzen zuen, baina, ironikoki, degradazio azkarra gertatu zitzaion urteen joan-etorian. "Azken Afarria" lanari zaharberritze asko egin zaizkio bere edertasuna eta xehetasunak gordetzeko.

Bere esanahi erlijiosoaz gain, narratiba kristauaren une garrantzitsu bat irudikatzen du. "Azken Afarria", izan ere, erreferentzia puntua da artearen historian, Leonardok adierazpen emozionala eta giza tentsioa ederki irudikatu zituelako.

Lanak mundu zabaleko bisitariak erakartzen ditu. Denak datoz mirestera Leonardok giza emozioen konplexutasuna eta sakontasun espirituala irudikatzeko duen trebetasun harrigarria. Horregatik da margolana kultur altxor ikaragarria, bai eta Milango turismo jomuga nabarmena ere.

Duomo

Milango Duomo delakoa katedral gotiko ikusgarria da. XIV. mendean eraikitzen hasi, eta lanek hainbat mendetan jarraitu zuten, hiriak monumentu adierazgarriekin izandako konpromisoaren adierazgarri. Munduko kristau tenplurik handienetako bat da, eta nabarmentzekoak dira bai arkitektura gotiko ikusgarria, bai marmol zuri-arrosan ondutako fatxada.

Katedralaren kanpoko apaingarri aberatsak dira nabarmentzekoak, milaka estatua, gargola eta pinakulu baititu. Duomoko gunerik altuenean Madonnina dago, hau da, Ama Birjinaren urre-koloreko estatua bat, hiriaren gainean eragiten duen babesaren ikur. Duomoko terrazek, gainera, Milango ikuspegi paregabeak eskaintzen dituzte. Bisitariak, gainera, pinakuluen artean ibiltzeko eta arkitekturaren konplexutasuna hurbiletik miresteko aukera dute.

Milango Duomoa ez da otoitz egiteko eta ospakizun erlijioso garrantzitsuak egiteko leku hutsa; urtero, milioika bisitari erakartzen dituen helmuga turistiko nagusia ere bada. Historia aberatsa, arte bikaina, arkitektura ikusgarria... Horra hor zergatik den kultur erreferentzia puntu ezin baliosagoa, eta, era berean, argazki gehien egiten diren lekuetako bat Italian.

B. TURISMOAREN ERAGIN KALTEGARRIAK

Artelan eta monumentu horiek guztiek turismoaren eragin kaltegarriari egin behar diete aurre, hainbat arrazoi direla eta:

Bisitari kopuru handia

- **Higadura fisikoa:** Leku horiek bisitatzen dituzten pertsona askok higadura fisikoa eragin dezakete beren bisitaldian. Adibidez, Koliseoan edo Florentziako Katedralean, bisitarien ibilera etengabeek zolak eta eskailerak higatu ditzakete.
- **Kutsadura:** Turismoak eremu horietako kutsadura areagotu dezake. Adibidez, garraiobideen bitartez.

Klima-aldaketa

Temperaturen igoerak eta klima-gorabeherak antzinako eraikinak eta artelanak kaltetu ditzakete. Turismo masiboak eragin handia du kutsaduran eta, ondorioz, klima-aldaketan.

Argi- eta giro-kutsadura

- **Kalteak artelanetan:** kutsadura atmosferikoak artelanak kaltetu ditzake, hala nola Kapera Sistinoko margolanak, kutsagarriek gainazal margotuak ilundu edo kaltetu ditzaketelako.
- **Argi-kutsadura:** Lekuak ikusteko eta esperimentatzeko moduari eragiten dio.

Argazkietarako eta sare sozialetarako esku-hartzeak

- Sare sozialetarako argazki ezin hobeak atera beharrik eraginik, turistak modu desegokian ukitu edo elkarreragin dezakete artelanekin edo monumentuekin, edo modu desegokian ibil daitezke haietan.

Babesa eta sarbide publikoa

- Jendeak horrelako gauza miresgarriak ikustea garrantzitsua den arren hezkuntzarako eta kultur estimaziorako, erronka da epe luzera kontserbazioa bermatzeko oreka egokia aurkitzea. Jende gehiegi sartzen bada, are azkarrago hondatu daitezke.

V. ERANSKINA:

ITALIAKO ALTXORREN ZAINZAILAK

A. Misio Jasangarriko Txartelak

1. Birziklapena

Turismoak zabor handia sortzen du eta, gehienetan, hondakinak ez dira berrerabiltzen edo birziklatzen. Ikertu zer neurri hartu dituen Italiak gune turistikoetan hondakinak birziklatzeko.

Misioa: Diseinatu birziklatze kanpaina bat zure eskolarako, Italiako artelanen batean oinarrituta, hala nola Pisako Dorrea, Koliseoa, Julietaren estatua, Milango Duomoa.

Bidaia lekuak: Florentzia, Erroma, Verona, Milan (talde bakoitzak bere kolorearen gometsa jarriko du inspiratu den lekuan)

2. Ura aurrezte

Ba al dakizu nola eragiten dien turismoak Veneziako ubideei? Zer gertatzen da erabili den urarekin? Nola arazten da? Ikertu ur garbiak pertsonentzat duen garrantzia.

Misioa: Esloganak sortzea ikastetxeko hainbat tokitan jartzeko, eskolan uraren kontsumoa murrizte aldera, Venezian ura kontserbatzeko ahaleginetan oinarrituta.

Bidaia lekua: Venezia.

3. Berdeguneen babesa

Badakizu zergatik den garrantzitsua hirietan parkeak eta berdeguneak edukitzea eta zaintzea? Nola laguntzen dio horrek ingurumenari? Batzuetan esaten da parkeak "hirietako hauspoa txikiak" direla. Jakizu zergatik.

Misioa: Auzo edo eskola lorategi baten sorrera planifikatzea, berdeguneen garrantzia nabarmenduta. Adibidez, honako lekuetan izan dezakezu inspirazioa: Erromako Villa Borghese, parke nazionaletako bat, Alpeak, etab.

Bidaia lekua: Talde bakoitzak bere koloreko gometsa jarriko du inspiratu den lekuan.

4. Berotze globala

Badakizu Italian goi-mendiko lurraldeak daudela? Badakizu nola eragiten dien berotze globalak goi-mendiko lurraldeei? Ezagutu glaziarren garrantzia eta nola eragiten dion haien galerak biodibertsitateari.

Misioa: Maketa bat egitea (plastilina, kartoia edo beste material batzuk erabiliz), eremu zuriak (elurra) eta eremu berdeak (landaredia) erakutsita.

Bidaia lekua: Alpeak

5. Energia Berriztagarriak

Italiako turismoak energia asko kontsumitzen du, Amalfiko Kostaldean eta gisako lekuetan, bereziki. Hala ere, Italiako eskualde batzuetan energia garbiak sustatzen ari dira, hala nola eguzki-energia edo eolikoa, ingurumen eragina murrizteko.

Misioa: Ikertu nola funtzionatzen duen Italiako eguzki-energiak. Gero, diseinatu proposamen bat zure eskolan energia berriztagarria erabiltzeko; adibidez, eguzki-panelak jartzea edo energia eolikoa erabiltzea.

Bidaia lekua: Amalfiko Kostaldea.

6. Elikadura Jasangarria

Italian, "slow food" mugimenduak tokiko nekazaritza eta janari osasungarria sustatzen ditu. Hori lagungarria zaie nekazariari, eta kutsadura ere murrizten du, produktuak ez baitira urrunetik garraiatzen.

Misioa: Ikertu Italiako "slow food" mugimenduari buruz eta antolatu zure eskolan edo auzoan tokiko produktuen merkatu txiki bat. Gonbidatu zure ikaskideak zure komunitatetik hurbil landutako frutak eta barazkiak ekartzera.

Bidaia lekua: Piemonte.

B. Galdera txartelak

1. Galdera: Zergatik dago Venezia arriskuan turismoaren eta klima-aldaketaren ondorioz? Zein da arrazoi nagusia?

Erantzuna: Hiria urtero urpean gelditzen da, baina hainbesteko turismoa dagoenez, hiria 5 eta 10 cm artean hondoratzen ari da mende bakoitzean. Gainera, klima berotzearen ondorioz, itsas mailak gora egin du eta uholdeak gero eta handiagoak dira.

2. Galdera: Zergatik da garrantzitsua Gizateriaren Ondarea babestea; Erromako Koliseoa, adibidez?

Erantzuna: Koliseoa Italiako ikur historiko eta kulturala da. Zaindu ezean, kutsadurak eta kontrolrik gabeko turismoak kalte egingo diote. Ondarea babestea garrantzitsua da etorkizuneko belaunaldiak ere Koliseoa ezagutu eta hartatik ikasteko aukera izan dezaten.

3. Galdera: Nola eragiten die turismo masiboak Italiako parke naturalei, hala nola Dolomitako Parke Nazionalari?

Erantzuna: Turismo masiboak parkeko ekosistemak kaltetu ditzake, zaborrak, zaratak eta higadurak bertan bizi diren landare eta animalien bizitza kaltetzen dutelako. Naturgune horiek zaintzea 15. GJHren barruan dago, helburu hori lehorreko ekosistemen bizitza babesten saiatzeko ezarri baita.

4. Galdera: Zergatik da garrantzitsua Italiako hiriek –Florentziak, adibidez– garraio jasangarria sustatzea?

Erantzuna: Garraio jasangarria sustatzeak (hala nola bizikletak edo autobus elektrikoak) airearen kutsadura murrizten du eta lagungarria da klima-aldaketari aurre egiteko. Horixe da GJH 11 ren xedeetako

bat, hots, hiriak jasangarriagoak eta osasungarriagoak izan daitezela bertan bizitzeko.

5. Galdera: Zer da "slow food" eta nola bultzatzen du GJHak Italian betetzera?

Erantzuna: "Slow food" tokiko elikagaiak jatea eta modu jasangarrian ekoiztea sustatzen duen mugimendua da. Hori eginez, nekazaritza arduratsua bultzatu eta ingurumena babesten da, 12. GJH lortzen lagunduz, hau da, ekoizpen eta kontsumo arduratsua lortzea.

6. Galdera: Zer eragin du turismoak Amalfiko Kostaldeko uraren kalitatean?

Erantzuna: Turismo neurrigabeak kutsadura eragin dezake hondartzetan eta itsasoan, eta horrek uraren kalitateari eta itsas animaliei eragiten die. Garrantzitsua da turismoa kontrolatzea ur baliabideak zaintzeko, horixe proposatzen baitu ur garbiari eta saneamenduari buruzko 6. GJHk.

7. Galdera: Nola bultzatzen du nekazaritza jasangarriak Italiako hegoaldeko pobreziaren murrizketa?

Erantzuna: Italiako hegoaldean, nekazaritza jasangarriak lanak eta aukerak sortzen ditu landa eremuetan bizi diren familientzat. Lurra eta ura zaintzen dituzten metodoak erabiliz, nekazariak elikagai gehiago ekoiztu eta diru-sarrerak hobetu ditzakete, eta horrek eremu horietako pobrezia murrizten laguntzen du, 1. GJHrekin bat eginda.

8. Galdera: Nola lagundu dezake turismo jasangarriak ingurumena babesten eta pertsonen bizitza hobetzen Italiako landa eremuetan, Toscanan, esate baterako?

Erantzuna: Toskanako turismo jasangarriak ingurumena errespetatzen du, natura kaltetzen ez duten jarduerak sustatzen baititu, hala nola mendi-ibiliak edo kultur turismoa. Gainera, lagungarria zaie tokiko komunitateei enplegua sortzeko eta tradizioak bizirik mantentzeko. Hori bat heldu da 8. GJHkin, lan duina eta hazkunde ekonomikoa sustatzen dituen helburuarekin, hain zuzen.

VI. ERANSKINA:

OZEANOA SALBATZEKO ANTZERKIA

1. agertokia: Hondartza garbia

Turista talde bat hondartza eder batera iristen da, baina zaborrez beteta aurkitzen du. Zer egin eta huraxe garbitzen nola lagundu erabaki behar dute, dibertsio eguna zapuztu gabe.

2. agertokia: Arrantzalea eta koralezko arrezifea

Bertako arrantzale baten bizimodua koralezko arrezifearen mendean dago, baina ohartu da turismoa arrezifea kaltetzen ari dela. Arrezifea babestu nahi du, baina aldi berean arrezifea bisitari interesatu batzuei erakutsi nahi die. Nola egin lezake?

3. agertokia: Dortoka trabatua

Itsas dortoka bat arrantza-sareen hondarretan gelditu da trabatua. Jolasean ari den haur talde batek hondartzan aurkitu du. Zer egingo dute dortokari laguntzeko eta zer egin dezakete aurrerantzean halakorik ez gertatzeko?

4. agertokia: Hotel jasangarria

Maria bertako bizilaguna da eta ohartu da gero eta turista gehiago dabilzala. Horregatik, ostatu berri bat eraiki nahi du kostaldean bisitariarentzako, ingurumena eta lurraldea errespetatuko dituen. Hotela mangladi habitat garrantzitsu batetik hurbil egongo da. Zure ustez, zer neurri hartu beharko lituzke hotela egiteko?

5. agertokia: Kontzientziazio kanpaina

Ikasle talde batek kanpaina bat hasi nahi du ozeanoen garrantziaz eta turismoak itsas bizitzan duen eraginaz kontzientziatzeko. Zer estrategia erabiliko dituzte beren komunitatea eta turistak hezteko?

6. agertokia: Koralak erreskatatzea

Koralak zuritzen ari dira itsasoko tenperatura gora ari delako. Urpekari zientifikoek eta turista boluntarioek espedizio bat egingo dute koralak salbatzen saiatzeko. Nola antola dezakete espedizioa arrezifeari kalte gehiago egin gabe?

VII. ERANSKINA:


ANTARTIKA ESPLORATZEKO TALDEA

A. ANTARTIKAKO BIZTANLEAK


Hona hemen Antartikan hazi edo bizi diren landare eta animalien zerrenda bat. Badira itsas eta lehorreko animaliak, bai eta muturreko ekosistema horretan bizi diren landare espezieak ere.

Antartikako fauna

- 1. Pinguino Enperadorea:** Munduko pinguinorik handiena. Antartikan bizi eta neguan ugaltzen dira, eta muturreko tenperaturak jasaten dituzte.
- 2. Adelaida pinguinoa:** Pinguino txikiago bat da. Kolonia handiak ditu Antartikako kostaldean eta horregatik da ezaguna.
- 3. Weddell itsas txakurra:** Maiz, itsas izotzean kostaldetik hurbil dagoen itsas txakur moduko bat da. Ederki moldatzen dira urpean.
- 4. Itsas txakur lehoinabarra:** Antartikako itsas txakur espezie handienetako bat da. Harrapari trebea da eta pinguiñoak eta beste itsas txakur batzuk ehizatzen ditu.
- 5. Itsas txakur karramarrozalea:** Izen hori gorabehera, krillez elikatzen da nagusiki, hau da, Antartikako elikadura-kateko funtsezko krustazeez.
- 6. Xibarta:** Balea erraldoiak dira eta Antartikako uretara migratzen dute udan, krillez eta arrain txikiz elikatzeko.
- 7. Orka (Balea Hiltzailea):** Elikatzailearen gailurrean dagoen harraparia. Itsas txakurrak eta pinguiñoak ehizatzen dituzte Antartikako itsasoetan.
- 8. Krill Antartikoa:** Ozeano Australerako elikadura-katean funtsezkoa da krustazee txiki bat da. Balea, pinguiño, itsas txakur eta hegazti espezie askoren elikagaia da.
- 9. Petrel Antartikoa:** Ozeanoko arrain eta ornogabe txikiz elikatzen den itsas hegaztia. Talde handietan egiten dute hegan.
- 10. Albatros:** Antartika inguruko itsasoetan dabiltzan hegaztiak. Distantzia luzeak egin ditzakete hegan janari bila.
- 11. Txipiroi erraldoia:** Antartikako ur hotzetan bizi den espeziea, baleek eta beste itsas espezie handi batzuek harrapatzen dutena.



Pinguino Enperadorea



Adelaida pinguinoa



Weddell itsas txakurra



Itsas txakur lehoinabarra



Itsas txakur karramarrozalea



Xibarta



Orka (Balea Hiltzailea)



Krill Antartikoa



Petrel Antartikoa




Albatros



Txipiroi erraldoia

Antartikako landareak


1. **Goroldio antartikoak:** 100etik gora goroldio espezie daude Antartikan. Lurzoru hezeetan eta harkaitzean hazten dira eta gauza dira muturreko hotzetan ere bizitzeko.
2. **Liken antartikoak:** Likenak Antartikako organismorik erresistenteenak dira. Harkaitzei itsasten zaizkie eta oso ur eta eguzki-argi gutxirekin bizi daitezke.
3. **Belar Antartikoa (*Deschampsia antarctica*):** Antartikan hazten diren bi landare loreduetako bat da. Izotzik gabeko lekuetan hazten dira, penintsula antartikoan.
4. **Krabelin Antartikoa (*Colobanthus quitensis*):** Antartikako beste landare loreduna da. Landare txiki hau izotzik gabeko lekuetan hazten da, eta haizeetara eta tenperatura apaletara egokitua dago.



Goroldio antartikoak



**Belar Antartikoa
(*Deschampsia antarctica*)**



Liken antartikoak



**Krabelin Antartikoa
(*Colobanthus quitensis*)**

B. EKOSISTEMETARAKO MEHATXU TXARTELAK.

1. **Berotze Globala eta Klima Aldaketa:** Tenperaturen igoeraren ondorioz izotza urtu egiten da, eta bizitzeko izotzaren mende dauden pingüino, itsas txakur eta gisako animaliei eragiten die.
2. **Kutsadura eta Zaborra:** Hondakinak, plastikoak bereziki, Antatikara iritsi daitezke eta kalte egin diezaiekete janariak direlakoan jaten dituzten animaliei edo bertan harrapatuta geratzen diren animaliei.
3. **Arrantza neurrigabea eta Krilla neurrigabe ustiatzea:** Krill krustazeo txiki giltzarria da elikadurakatean. Arrantza neurrigabeak haren kantitatea murrizten du, eta hartaz elikatzen diren espezieei eragiten die.

4. **Espezie inbaditzaileak sartzea:** beste eskualde batzuetako landareak edo animaliak Antartikara iritsi daitezke eta bertako ekosistemen oreka naturala alda dezakete.
5. **Turismoa eta Giza Jarduera:** Turismoa handitzeak animaliei traba egin diezaieke, kutsadura eragin dezake eta ingurune naturala kaltetu, behar bezala kontrolatzen ez bada.
6. **Erregai isuriak eta kutsatzaile kimikoak:** Petrolio isuriek edo itsasontzietako eta baseetako gai kimikoek ura eta lurzorua kutsatu ditzakete, flora eta faunari kalte eginez.
7. **Ozono-geruzako zuloa:** Antartikaren gaineko ozono-geruza murrizteak areagotu egiten du UV erradiazioa, eta horrek kalte egin diezaieke organismo biziei eta ekosistemen osasunari.
8. **Ozeanoak azidotzea:** Karbono dioxidoa handitzearen ondorioz, ozeanoak azidoago bihurtzen dira, eta itsas animaliei eragiten die, batez ere maskordunei edo oskoldunei.
9. **Glaziarrek urtzea:** Glaziarren urtzaldiak aldaketak eragin ditzake itsas mailan eta, halaber, izotzetan bizi diren animalien habitatak alda ditzake.
10. **Itsaspeko zarata:** Itsasontzi eta makinaren soinu handiek nahastu eta estresatu egin ditzakete soinua komunikatzeko eta orientatzeko erabiltzen duten itsas animaliak.
11. **Mikroplastikoak uretan:** Itsas animaliek ura kutsatzen duten plastikozko partikula txikiak jan ditzakete eta, ondorioz, osasun arazoak izan ditzakete.
12. **Argi-kutsadura:** Antartikan oso gutxi dagoen argi, argi artifizialak animalien patroia naturalei eragin diezaieke, bereziki gau polarretan.
13. **Aldaketak Ozeanoko itsaslasterrean:** Itsaslasterren aldaketek eragina izan dezakete mantenugaien banaketan eta kliman, itsas bizitzan eta klima globalean eraginda.
14. **Habitaten galera:** Izotza murrizteak eta ingurunea aldatzeak animalien elikatzeko, ugaltzeko eta babesteko lekuen galera eragin dezakete.
15. **Ikerketa Zientifiko Ez-jasangarria:** Oinarri eta proiektu zientifikoak arduratsuak ez badira, hondakinak sor ditzakete eta bertako ingurumenean kalteak eragin.
16. **Arrantza Ez-jasangarria:** Ozeano Australerako arrantza industrialak, krill arrantzak bereziki, krustazeo horren populazioak murrizten ditu, eta horixe da Antartikako elikadura-katearen oinarria. Horrek krillaren mende dauden espezie guztiei eragiten die, hala nola baleei eta pingüinoei.
17. **Kontrolik gabeko turismoa:** Antartikako turismoak gora egin du, eta horrek animalien habitatak eta portaera naturalak kaltetu ditzake. Gainera, kutsadura ekar dezake eta ingurunea hondatu.
18. **Espezie inbaditzaileak:** Batzuetan, bertakoak ez diren espezieak giza garraioaren edo turismoaren bidez iristen dira Antartikara, ekosistema delikatuak aldatuta, eta bertako espezieekin lehiatuta baliabideak eskuratzeko.
19. **Erregai isuriak eta Kutsatzaileak:** Giza jarduerak -ikerketa zientifikoak eta turismoak kasu-itsasontziak erabiltzen dituzte, eta istripua gertatuz gero, erregaiak edo produktu kimikoak isuri ditzakete itsasora, ura kutsatuta eta itsasoko bizitza kaltetuta.

ERREFERENTZIAK

Elsalvador.com. (2021, 8 marzo). Ellas son 28 de las mujeres más influyentes en la historia de El Salvador. Noticias de el Salvador - elsalvador.com.

historico.elsalvador.com/historico/814021/mujeres-influyentes-en-el-salvador.html



Billiken. (2021, 3 diciembre). Prudencia ayala [Vídeo].

YouTube. www.youtube.com/watch?v=JFTfKSwLBoc



Biblioteca Virtual Cuzcatlán. (2024, 16 julio). Isabel Dada, la historia de esta actriz [Vídeo].

YouTube. Recuperado 26 de septiembre de 2024, de:

www.youtube.com/shorts/LbvMFgB5jPQ?si=tDMzD19viE3ahMND



NORTV. (2015, 17 marzo). Cristina Lopez Un ejemplo de mujer que puso en alto a El salvador [Vídeo].

YouTube. www.youtube.com/watch?v=pNvsCxVlcSU



Imágenes fauna y flora Antártida

www.pexels.com/es-es/

es.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Portada



